



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE

GRADUKO tituluen

PRACTICUM I, II eta III-ren GIDA LABURRA

LEHEN HEZKUNTZA
HAUR HEZKUNTZA

2019 - 2020

AURKIBIDEA

| | |
|--|----|
| 1. SARRERA..... | 3 |
| 2. PRAKTIKA-PLAZA BAT ESLEITZEKO PROZEDURA | 6 |
| 3. PRACTICUM I-AREN ARAUDIA..... | 8 |
| 4. PRACTICUM II-AREN ARAUDIA | 9 |
| 5. PRACTICUM III-AREN ARAUDIA | 10 |
| 6. PRAKTIKETAKO PLANA | 11 |
| 7. EBALUAZIOA..... | 15 |
| 8. BALIOZKOTZEAK - AITORPENAK..... | 16 |
| 9. EGUTEGIA | 17 |

1. SARRERA

33/2018 DEKRETUA, martxoaren 6koa, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxeetan irakasle izateko gaitzen duten unibertsitate-ikasketen Practicumari eta titulazioa dela-eta masterreko ikasketak egin ezin dituzten pertsonentzako prestakuntza baliokidearen Practicumari buruzkoa oinarrian izanik, Hezkuntza eta Kirol Fakultateak, Praktiken Dekanordetzaren eta Praktika Batzordearen bitartez, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako graduen tituluei dagozkien Practicum I, Practicum II eta Practicum III egiteko baldintzak finkatu ditu. Hauek dira prozesu honetan parte hartzen duten eragileak:

Hezkuntza eta Kirol Fakultatea

Praktiken Dekanordetza arduratuko da, bertara atxikitako administrazio eta zerbitzuetako langileekin batera, Practicum-a antolatzeaz. Prozesuaren hasieran, ikasleentzako informazio-bilera bat egingo da. Bertan, plaza ziurtatzeko beharrezkoak diren ekintzak eta kreditu horiek egiteko ezinbestekoak diren gainerako baldintza guztiak deskribatuko dituzte. Era berean, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin, ikastetxeekin, unibertsitateko irakasle tutoreekin eta eskoletako maisu-maistra tutoreekin izan beharreko harremanak kudeatuko ditu Hezkuntza eta Kirol Fakultateak.

Hezkuntza eta Kirol Fakultateko Practicum Batzordeak baliozkotuko du prozedura osoa, eta beharrezkoa den orotan egingo ditu bitartekaritza lanak.

Practicum Dekanordea: Ana Isabel Ugalde Gorostiza (1-5 bulegoa)

Telefono zenbakia: 945 01 32 79

Helbide elektronikoa: anaisabel.ugalde@ehu.eus

Ikastegiko teknikaria: Iñigo Fernández Larrea (1-5 bulegoa)

Telefono-zenbakia: 945 01 34 02

Helbide elektronikoa: inigo.fernandez@ehu.eus

Haur Hezkuntzako edo Lehen Hezkuntzako Ikastetxea

Abiapuntua Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak eskura jarritako IKASTETXEEN ESKAINTZA izango da. Practicum Dekanordetzak bitartekari lanak egingo ditu zerrendako ikastetxeekin, ikasle orok plaza bat izan dezan, eskola batean eta tutore batekin.

Ikastetxeen **borondatezko** lankidetzak izango dugu. Beraz, ezinbestekoa da erabateko errespetuz jokatzeko, ikastetxeari begira eta bertako langileei begira, nola plazen izapideak egitean, hala ondorengo egonaldian. Hona hemen maisu-maistra tutorearen egitekoak:

- Ikastetxeko praktiken koordinatzailearekin eta unibertsitatean praktiken ardura duenarekin elkarlanean aritzea, bi erakunde horien artean egin behar

den lana koordinatzeko, eta praktiketako ikasleei behar bezalako harrera egingo zaiela ziurtatzea, ikasturtean zehar ezartzen diren aldietan.

- Practicumean egin beharreko zereginen inguruan ikasleen autonomia eta erantzukizun-sena bultzatzea.
- Hezkuntzaren arloko kultura profesionala sustatzea, hezkuntza berriztatzea eta irakasle-funtzioaren balio gisa erantzukizun eta konpromisoa defendatuko dituen.
- Tutoretzapean duen praktiketako ikasleak egin behar dituen jarduera hezigarri orokorrak ikuskatzea.
- Ikasleek egin beharreko praktiketako plan orokorraren barruan berariazko jarduera hezigarriak proposatzea.
- Ikasgela-praktikak egiten diren bitartean ikasleari laguntzea eta harekin egotea, kasu bakoitzean erabakiz ikasleak bere zeregina egiteko zer autonomia-maila behar duen.
- Praktiken prestakuntza-prozesua ebaluatzea, ikasleari bere jardunaren ahulgune eta indarguneak jakinaraziz, betiere jardun hori hobetze aldera.
- Praktiketako ikaslearen esku jartzea agintzen zaizkion jarduera hezigarriak prestatzeko ikastetxeak dituen baliabideak, bereziki arloko programazioak edo didaktika saileko materiala.
- Azken txostena egitea praktiketako ikasleek lortutako konpetentziak ebaluatzeko, tituluaren memoria egiaztatuak onartutako ebaluazio-ereduaren arabera.

Hezkuntza eta Kirol Fakultateko tutorea

Hezkuntza eta Kirol Fakultateko irakasle tutoreen egitekoak:

- Hezkuntza eta Kirol Fakultateko Hezkuntza eta Kirol Fakultateko enborreko ikasgai horretako ikasle-talde baten erantzukizuna hartzea eta haien irakaskuntzaz arduratzea, egutegian ezarritako aurre formazioa eta jarraipen mintegiak bere gain hartuta.
- Practicum-aren Dekanordetzak eta titulazioaren koordinatzaileak deitutako bileretara joatea.
- Ikaslearen praktika ikastetxea bisitatzea.
- Ikasleak ikasgelan gauzatu beharreko irakaskuntza horretan orientatzea, teoria eta praktika erlazioa ditzan.
- Planteamendu teorikoei jarraitutasuna ematen saiatzea, ikasleak eduki horiek ikasgeletan aplikatu ahal izateko; horretarako, irakasle-tutorearekin lankidetzan estuan arituko da.
- Beharrezkoa balitz, ikasleekin bilerak egitea praktiketan zehar gerta daitezkeen arazoak eta gertaerak banaka edo taldean konpontzeko.
- Ikasleei Practicum-aren egitaraua ematea.
- Praktiketako ikasleei arreta eta laguntza ematea, ikastetxeetan egiten duten lana gidatzea eta beharrezko orientazioak ematea.
- Ikastetxeetako zuzendariekin edo koordinatzaileekin eta ikasleen maisu-maistra tutorearekin harremana izatea.

- Ebaluazio-agiriak maisu-maistra tutoreei bidaltzea eta, horiek bete ostean, jasotzea.
- Ikasleak gidatzea praktiken memoria egitean, hori ebaluatzea eta kalifikatzea, ezarritako orientazioen arabera.
- Praktika aldia kalifikatzea, ikasleak gauzatutako lanak, maisu-maistra tutore bakoitzak egindako ebaluazioa eta ikastetxeetara egindako bisitetan jasotako oharrak kontuan izanik.
- Practicum-a hobetzeko iradokizunak eta ekarpenak egitea.

Praktiketako ikaslea

Ikasleek eskubide hauek izango dituzte prestakuntza-zentroan praktikak egiten ari diren bitartean:

- Prestakuntza-zentroan esleitu dieten irakasle tutorearen tutoretza jasotzekoa.
- Unibertsitateak ezarritako irizpideen arabera ebaluazioa izatekoa.
- Informazioa eskuratzeko, ebaluaziorako eta praktikak egiteko behar dituzten baliabideak izatekoa.
- Sexuagatik bereizkeriarik ez jasatekoa eta desberdintasunean begirunez tratatua izatekoa.

Era berean, honako hauek izango dira ikasleen betebeharrak:

- Unibertsitateak praktiken inguruan ezarritako arauak betetzea.
- Praktiken eta praktiken barruan adostutako jardueren prestakuntza-proiektua ezagutzea eta betetzea, prestakuntza-zentroko praktiketako irakasle tutorearen argibideei jarraituz, eta unibertsitateko tutorearen gainbegiratupean.
- Adostutako datan dagokion prestakuntza-zentroan praktiketan hastea, prestakuntza-proiektuan aurreikusitako ordutegia betetzea eta prestakuntza-zentroaren funtzionamendu- eta antolaketa-arauak errespetatzea.
- Praktiketako prestakuntza-zentroaren barneko informazioa isilpean gordetzea, bai praktikek dirauten bitartean, bai ondoren.
- Une oro, errespetuz jokatzeko prestakuntza-zentroarekin, bertako irakasleekin, ikasleekin eta haien familiekin. Practicum-aren fase desberdinak ezagutu eta hauetan parte hartzea (informazio bilerak, plaza banaketa, memoria entregatzea...) eta bete daitezkeen laguntza.
- Aurretiko prestakuntza ikastaroan eta Practicum-aren segimendu mintegietan parte hartzea.
- Hezkuntza eta Kirol Fakultateko irakasle eta eskolako maisu-maistra tutoreekin lankidetzan aritzea.
- Practicum-aren egitaraua eta garapena ezagutzea.
- Esleitutako plazarari uko egitekotan, Praktiketako Dekanordetzan horren berri ematea.

2. PRAKTIKA PLAZA BAT ESLEITZEKO PROZEDURA

1. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak praktikak egiteko plazak eskainiko ditu Euskal Herriko Autonomia Erkidegoan ezarrita dauden unibertsitate guztientzako, baita, kanpoko unibertsitateak izanik, bertako ikasleak dituztenentzako ere.
2. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak egindako eskaintza jaso ondoren, Hezkuntza eta Kirol Fakultateko Practicum Dekanotzak argitaratu egingo du berau, ikasleen esku jartzeko.
3. Ikasleek hiru Practicum-ak egin beharko dituzte bizpahiru eskolatan eta haien ardura da hori bermatzea. Haur Hezkuntzako ikasleek praktika egonaldia etapa honetako bi zikloetan (0-3, 3-6 urte bitartekoetan) egin behar dute. Eta **Haur Hezkuntzako Goi Mailako Teknikari** tituludunek (Goi Mailako Lanbide Heziketa) Practicum III-ko egonaldia Haur Hezkuntzako 2. zikloan egin beharko dute. Lehen Hezkuntzako ikasleei dagokienez, praktika aldiak etapako 2 zikloetan (1., 2. edo 3. mailetakoa, eta 4., 5. edo 6.ekoan) gauzatu beharko dituzte. Practicum III-a egin ostean, batzordeak egiaztatuko balu betekizun horiek ez direla bete, Practicum III-a EZ DELA AURKEZTU balioetsiko da.
4. **Gorputz Hezkuntzako minorrean matrikulatutako ikasleek** dagokion Gorputz Hezkuntza ikasgaiko (Lehen Hezkuntzan) espezialista den maisu-maistra tutore batekin egingo dute PRACTICUM III-a.

2.1. Ikasleek ikastetxea aukeratzea. PRACTICUM I eta II

- a. Hezkuntza eta Kirol Fakultateko Practicum Dekanordetzaren ardura da ikasle guztiek plaza akreditatu bat izatea, euren praktika aldia burutu ahal izateko.
- b. Practicum I eta Practicum II Arabako Lurralde Historikoan egingo dira.
- c. Hezkuntza eta Kirol Fakultateak argitaratuko du Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak emandako praktiketarako ikastetxeen zerrenda eta hala, ikasleek zer nahiago duten pentsa dezakete.
- d. Ikasleek jakin araziko diote Hezkuntza eta Kirol Fakultateko Practicum Dekanordetzari zeintzuk diren gustuko ikastetxeak.
- e. Hezkuntza eta Kirol Fakultateko Practicum Dekanordetza saiatuko da ikasleen gustuko diren eskolekin bitartekari lana egiten, baina ezin izango du sekula bermatu haiek gurako zuketena beteko denik.
- f. Prozesu hau amaituta, ikasleek ikusi ahal izango dute GAUR-en esleitutako plaza, eta praktiketako tutore izango duen Hezkuntza eta Kirol Fakultateko irakaslearen izena.
- g. Esleitutako plazari uko egitekotan, ikasleak Praktiketako Dekanordetzan horren berri eman beharko du.

2.2. Ikasleek ikastetxea aukeratzea. PRACTICUM III

Hezkuntza eta Kirol Fakultateak argitaratuko du Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak emandako praktiketarako ikastetxeen zerrenda, ikasleek ezagutu dezaten.

Ikasleak plaza eskuratzeko egin behar duena:

1. Arestian aipaturiko zerrenda horretatik, komeni zaion ikastetxera zuzenean jo plaza eske, ondoren zehazten diren urratsak betez:

1.a. **Ikasleak inprimaki bat jasoko du 1-5 bulegoan (badago fakultatearen webgunean eskuratzetik), eta ikastetxean aurkeztu beharko du.**

1.b. **Inprimaki hori ikastetxeko ZUZENDARIAK bete beharko du, ikaslearen, ikastetxearen eta ikastetxeko tutorearen datuak jarritz. Inportantea da datuok osorik eta ondo irakurtzeko moduan ematea. Inprimakiak balioa izan dezan zuzendariaren SINADURA eta ikastetxearen ZIGILUA eraman beharko ditu.**

1.c. **Datuok ikasleak GAUR-en sartu eta ondoren, inprimaki hori 1-5 bulegora eraman, jarritako epeak errespetatuz.**

1.d. **Hautatutako plazaren xehetasunak, Practicum Dekanordetzan baliozkotu ondoren, GAUR aplikazioaren bitartez emango dira argitara. Garrantzitsua da datuok egiaztatzea eta leudeken akatsak lehenbailehen jakinaraztea, ikastetxeetara dokumentazio zuzena helarazteko.**

2. Azkenik, esleitutako plazari uko egitekotan, ikasleak Praktiketako Dekanordetzan horren berri eman beharko du.

2.3. Bestelakoak

Ikasleren batekin familia-lotura duten maisu-maistrek ezingo izango dute ikasle horren irakasle tutore lana egin.

3. PRACTICUM I-EN ARAUDIA

1. Practicum I (9 kreditu Lehen Hezkuntzan, 8 Haur Hezkuntzan) enborreko eta derrigorrezko irakasgaia da, irakaskuntza arautuko ikastetxe batean egiten dena (publiko zein pribatua), 150 ordutan: 5 astetan banatuta, goizez eta arratsaldez.

2. Practicum-a, hain zuzen, Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan egin beharko da; sekula ez DBHn.

3. Ezinbestekoa izango da 150 ordu egitea, irakasgaia egindakotzat jotzeko. Horregatik, adierazitako epean (5 aste) esleitutako maisu-maistra tutoreak ez baditu finkatutako 150 orduak bete, ikasleak beste irakasle batekin osatu beharko ditu falta zaizkion orduak.

4. NAHITAEZKOA da praktiketara joatea. Agertu ezean, jakinarazpena eta egiaztagiria aurkeztu beharko zaizkie ikastetxeko tutoreari eta Hezkuntza eta Kirol Fakultateko tutoreari.

Justifikatutako 2 egun oso baino gehiagoko ez-agertzeak – edo 4 saio erdi, goizean zein arratsaldean- gerora bete beharko dira. Frogatu barik, bi egun osotan agertu ezean – edo 4 saio erditan, goizean zein arratsaldean-, Praktikak automatikoki ezeztatuko dira.

5. Praktiketaren dabilen ikasle bakoitzak Hezkuntza eta Kirol Fakultateko tutore bana izango du esleituta.

6. Praktiketako egonaldiaren aurretik, 8 orduko DERRIGORREZKO prestakuntza egingo du ikasleak. Era berean, Hezkuntza eta Kirol Fakultateko tutoreak egutegian zehaztutako 3 jarraipen mintegietara (2 ordukoak) joatea ere DERRIGORREZKOA izango da. Saio hauetara EZ JOATEAK AZKENEKO NOTAN eragina izango du.

7. Practicum-aren amaieran, **ikasleak banako memoria bat aurkeztu** beharko du; eta bertan, **praktiketan izandako esperientziaren berri** eman beharko du. Aipatutako lan horren edukiari buruzko informazioa ematea, berriz, Hezkuntza eta Kirol Fakultateko tutorearen ardura izango da. **IDAZKARITZAN** aurkeztu beharko da memoria hori; hain justu, egutegian adierazitako **egunean (eta soil-soilik egun horretan)**. Memoria ez bada egun horretan jasotzen edo ez badauka idazkaritzako zibilurik eta frogagiririk, ikasleak EZ AURKEZTUA kalifikazioa jasoko du deialdi horretan.

8. **Ezinbestekoa** da adierazitako baldintzak errespetatzea (egutegia, ordutegia eta bestelakoak). **EDOZEIN ALDAKETA EGIN NAHI IZANEZ GERO, ON-LINE EGIN BEHARKO DA ESKAERA, FAKULTATEKO WEB ORRIAN ZEHAZTUTAKO ATALEAN, ETA PRAKTIKA BATZORDEAK ONARTU EGIN BEHARKO DU.**

Oharra: araudia urratuz gero, ikaslearen beraren erantzukizuna izango da; eta ez da onartuko ikaslearen eta Hezkuntza eta Kirol Fakultateko tutorearen edo ikaslearen eta praktiketako ikastetxearen arteko inolako akordiorik.

4. PRACTICUM II-REN ARAUDIA

1. Practicum II (11 kreditu Lehen Hezkuntzan, 12 Haur Hezkuntzan) enborreko eta derrigorrezko irakasgaia da, irakaskuntza arautuko ikastetxe batean egiten dena (publiko zein pribatua), 210 ordutan: 7 astetan banatuta, goizez eta arratsaldez.

2. Practicum-a, hain zuzen, Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan egin beharko da; sekula ez DBHn.

3. Ezinbestekoa izango da 210 ordu egitea, irakasgaia egindakotzat jotzeko. Horregatik, adierazitako epean (7 aste) maisu-maistra tutoreak ez baditu finkatutako 210 orduak bete, ikasleak beste irakasleren batekin osatu beharko ditu falta zaizkion orduak.

4. NAHITAEZKOA da praktiketara joatea. Agertu ezean, jakinarazpena eta egiaztatzea aurkeztu beharko zaizkie ikastetxeko tutoreari eta Hezkuntza eta Kirol Fakultateko tutoreari.

Justifikatutako 2 egun oso baino gehiagoko ez-agertzeak – edo 4 saio erdi, goizean zein arratsaldean- gerora bete beharko dira. Frogatu barik, bi egun osotan agertu ezean – edo 4 saio erditan, goizean zein arratsaldean-, Praktikak automatikoki ezeztatuko dira.

5. Praktiketara dabilen ikasle bakoitzak Hezkuntza eta Kirol Fakultateko tutore bana izango du esleituta.

6. Praktiketako egonaldiaren aurretik, 8 orduko DERRIGORREZKO prestakuntza egingo du ikasleak. Era berean, Hezkuntza eta Kirol Fakultateko tutoreak egutegian zehaztutako 3 jarraipen mintegietara (2 ordukoak) joatea ere DERRIGORREZKOA izango da. Saio hauetara EZ JOATEAK AZKENEKO NOTAN eragina izango du.

7. Practicum-aren amaieran, **ikasleak banako memoria bat aurkeztu** beharko du; eta bertan, **praktiketan izandako esperientziaren berri** eman beharko du. Aipatutako lan horren edukari buruzko informazioa ematea, berriz, Hezkuntza eta Kirol Fakultateko tutorearen ardura izango da. **IDAZKARITZAN** aurkeztu beharko da memoria hori; hain justu, egutegian adierazitako **egunean (eta soil-soilik egun horretan)**. Memoria ez bada egun horretan jasotzen edo ez badauka idazkaritzako zigilurik eta frogagiririk, ikasleak EZ AURKEZTUA kalifikazioa jasoko du deialdi horretan.

8. **Ezinbestekoa** da adierazitako baldintzak errespetatzea (egutegia, ordutegia eta bestelakoak). **EDOZEIN ALDAKETA EGIN NAHI IZANEZ GERO, ON-LINE EGIN BEHARKO DA ESKAERA, FAKULTATEKO WEB ORRIAN ZEHAZTUTAKO ATALEAN, ETA PRAKTIKA BATZORDEAK ONARTU EGIN BEHARKO DU.**

Oharra: araudia urratuz gero, ikaslearen beraren erantzukizuna izango da; eta ez da onartuko ikaslearen eta Hezkuntza eta Kirol Fakultateko tutorearen edo ikaslearen eta praktiketako ikastetxearen arteko inolako akordiorik.

5. PRACTICUM III-REN ARAUDIA

1. Practicum III (18 kreditu) enborreko eta derrigorrezko irakasgaia da, irakaskuntza arautuko ikastetxe batean egiten dena (publiko zein pribatua), 300 ordutan, 10 astetan banatuta, goizez eta arratsaldez.
2. Practicum-a, hain zuzen, Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan egin beharko da; sekula ez DBHn.
3. **Heziketa Fisikoko** minorreko ikasleek bere espezialitateko maisu-maistra batekin burutu beharko dute praktika aldia. **Heziketa Fisikoko Practicum III-a egin ahal izateko, lehentasuna izango dute minorreko irakasgai guztietan matrikulatuta daudenak, zeinak euskaraz soilik burutzen diren.**
4. Gogoratu hiru Practicum-ak gutxienez bi ikastetxe eta bi ziklo ezberdinetan egin beharko direla, edozein izanda ere matrikulatutako gradua. Practicum III-a egin ondoren, Batzordeak egiaztatzen badu ikasleak ez dituela bete baldintza horiek, Practicum III-ko balorazioan EZ AURKEZTUA jarriko zaio.
5. Goi-mailako Lanbide Heziketako **Haur Hezkuntzako Goi-mailako Teknikari** tituludunek Practicum III-ko egonaldia Haur Hezkuntzako 2. zikloan egin beharko dute.
6. Ezinbestekoa izango da 300 ordu egitea, irakasgaia egindakotzat jotzeko. Horregatik, adierazitako epean (10 aste) maisu-maistra tutoreak ez baditu finkatutako 300 orduak bete, ikasleak beste irakasleren batekin osatu beharko ditu falta zaizkion orduak.
7. NAHITAEZKOA da praktiketara joatea. Agertu ezean, jakinarazpena eta egiaztatzea aurkeztu beharko zaizkie ikastetxeko tutoreari eta Hezkuntza eta Kirol Fakultateko tutoreari.
Justifikatutako 2 egun oso baino gehiagoko ez-agertzeak – edo 4 saio erdi, goizean zein arratsaldean- gerora bete beharko dira. Frogatu barik, bi egun osotan agertu ezean – edo 4 saio erditan, goizean zein arratsaldean-, Praktikak automatikoki ezeztatuko dira.
8. Praktiketaren dabilen ikasle bakoitzak Hezkuntza eta Kirol Fakultateko tutore bana izango du esleituta.
9. Praktiketako egonaldiaren aurretik, 8 orduko DERRIGORREZKO prestakuntza egingo du ikasleak. Era berean, Hezkuntza eta Kirol Fakultateko tutoreak egutegian zehaztutako 3 jarraipen mintegietara (2 ordukoak) joatea ere DERRIGORREZKOA izango da. Saio hauetara EZ JOATEAK AZKENEKO NOTAN eragina izango du.
10. Practicum-aren amaieran, **ikasleak banako memoria bat aurkeztu** beharko du; eta bertan, **praktiketan izandako esperientziaren berri** eman beharko du. Aipatutako lan horren edukari buruzko informazioa ematea, berriz, Hezkuntza eta Kirol Fakultateko tutorearen ardura izango da. **IDAZKARITZAN** aurkeztu beharko da memoria hori; hain justu, egutegian adierazitako **egunean (eta soil-soilik egun horretan)**. Memoria ez bada egun horretan jasotzen edo ez badauka idazkaritzako zigilurik eta frogagiririk, ikasleak EZ AURKEZTUA kalifikazioa jasoko du deialdi horretan.
11. **Ezinbestekoa** da adierazitako baldintzak errespetatzea (egutegia, ordutegia eta bestelakoak). EDOZEIN ALDARETA EGIN NAHI IZANEZ GERO, ON-LINE EGIN BEHARKO DA ESKAERA, FAKULTATEKO WEB ORRIAN ZEHAZTUTAKO ATALEAN, ETA PRAKTIKA BATZORDEAK ONARTU EGIN BEHARKO DU.

Oharra: araudia urratuz gero, ikaslearen beraren erantzukizuna izango da; eta ez da onartuko ikaslearen eta Hezkuntza eta Kirol Fakultateko tutorearen edo ikaslearen eta praktiketako ikastetxearen arteko inolako akordiorik.

6. PRAKTIKETAKO PLANA

Praktiketako planak Hezkuntza eta Kirol Fakultateko web-orrian eskuratu ahal izango dira.

PRACTICUM I

Helburuak

Practicum I-aren funtsezko helburua da, hain zuzen, ikasleek ikastetxearekin lehenengo harremana finkatzea eta **behaketa** lan orokor bat egitea. Horretarako, Hezkuntza eta Kirol Fakultatean ikasitako ezagutzak txertatu beharko dituzte, ikasgelako aniztasunari, eskolari eta beronen gizarte-inguruneari egokituta. Gainera, berebiziko arreta eskaini beharko diote **genero-tratamenduari**. Oso garrantzitsua da ikasleak behaketarako, informazioa biltzeko, eta datuak aztertu eta interpretatzeko moduak eta teknikak ezagutzea; eta bide beretik, jarrera positiboa eta lankidetzan jarduteko, taldean lan egiteko eta lankideekin harreman onerako aurrez aurretiko jarrera erakutsi beharko du beti.

Hona hemen, zehatz-mehatz, Practicum I-aren helburuak:

1. Ikastetxea eta haren ingurunea

- Irakasle lanbidearekin ohitzen joatea.
- Eskolako errealitatea behatzeari ekitea.
- Ikastetxearen antolamendu egitura ezagutzea: zuzendaritza-taldea, batzorde pedagogikoa, koordinazio mailak...
- Ikastetxearen proiektu guztiak ezagutzea: Ikastetxeko Hezkuntza Proiektua, Curriculum Proiektua, Hizkuntza Proiektua...
- Ikastetxearekin elkarreraginean dauden zerbitzuak ezagutzea: Berritzeguneak, baliabide teknikoak eta laguntzarako baliabide pertsonalak...
- Ikastetxearen gizarte eta kultura ingurunea, hizkuntza ingurunea eta ekonomia ingurunea ezagutzea.
- Ikastetxeko ingurunearen instalazioak eta zerbitzuak eta horien erabilera maila ezagutzea.
- Gurasoek ikastetxean duten esku-hartze mailari buruzko informazioa biltzea.
- Erantzukizunean oinarritutako jarrera gogotsua erakustea, eta hezkuntza jardueraren berezko erantzukizunetan pixkanaka-pixkanaka parte hartzen joatea.

2. Ikasgela

- Zuzeneko behaketa-teknikaren garrantzia ezagutzea.
- Ikasgelan informazioa biltzeko dauden tresnetara ohitzen joatea.
- Informazioa aztertzen eta interpretatzen jakitea.
- Eskuratutako ezagutza teorikoak ikastetxeko eta ikasgelako errealitatearekin harremanetan jartzea.
- Aniztasunaren faktore guztiak ezagutzea: generoa, kulturartekotasuna...

- Ikasgela bateko errealitatearen aldagai guztien arteko dinamikari eta elkarreraginari behatzea.
- Ikasgela ezagutzea eta bertara egokitzea, eta ikasleen ezaugarrietara ohitzen joatea.
- Talde/ikasgela batean, denboraren eta espazioaren antolamendua aztertzea.
- Ikasgelan garatutako metodologia-estrategiei behatzea eta horiek ezagutzea.
- Ikasleek hainbat zereginetan izaten dituzten gaitasunak eta zailtasunak identifikatzea eta aztertzea.

3. Mintegiak

- Modu antolatu eta koherentean aurkeztea ikastetxean egindako behaketak eta izandako esperientziak.
- Lankideek izandako esperientziei buruzko elementu garrantzitsuenak biltzea eta aztertzea, hots, tutoretzapeko saioetan egindako trukeetakoak.

4. Memoria

- Egindako behaketak, azterketak eta gogoetak bilduko dituen memoria bat egitea.

Gaitasunak

- a. Gelaren eta bertako kudeaketaren ezagutza praktikoa hartzea.
- b. Gelan elkar eragiteko eta komunikatzeko dauden prozesuak behatzea, bertan giro egoki bart sortzeko asmoz.
- c. Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuko aldagai nagusiak identifikatzea.

PRACTICUM II

Helburuak

Practicum II irakasgaiaren helburu nagusia da irakaslearen eginkizunaren eta irakas-
praktikaren inguruan hausnartzea, eta esku-hartze didaktiko bat diseinatzea.

Hona hemen, zehatz-mehatz, Practicum II-aren helburuak:

Ikasgelan behatutako praktiken analisia

- 1. Gelan irakasteko eta ikasteko egoerak deskribatu, interpretatu eta baloratzea**
 - 1.1. Klasea antolatzea (espazioa, denbora sekuentzia, materialak).
 - 1.2. Multzokatzea eta harremanak.
 - 1.3. Kudeatzeko eta parte hartzeko arauak.
 - 1.4. Jarduera motak.
 - 1.5. Behatze eta ebaluatze sistemak.
 - 1.6. Gorabehera kritikoak.
- 2. Gelako gizarte antolamendua eta ikaskuntza prozesua aztertzea**
 - 2.1. Taldeko kohesioa eta giroa.

- 2.2. Ikasleen ezaugarriak.
 - 2.3. Irakaslearen igurikpenak.
 - 2.4. Irakaslearen rola gelako taldearen bizitzan.
 - 2.5. Ikaslearen motibazioa.
 - 2.6. Gorabehera kritikoak.
3. **Bizikidetz, planteamendu eta gatatzak konpontzeko estrategiak aztertzea**
- 3.1. Gaitasun sozialak eta gatatzak konpontzea.
 - 3.2. Egoera diskriminatzaileak eta haien aurreko jokabidea (jarduteko protokoloak eta programak).
 - 3.3. Gorabehera kritikoak.
4. **Aniztasunaren trataera aztertzea**
- 4.1. Ikaskuntza mugak ezagutzea.
 - 4.2. Ikaskuntza erritmoetara egokitzea: metodologiak eta ebaluazioa.
 - 4.3. Gorabehera kritikoak.
5. **Gelako komunikazio eta elkar eragite prozesuak aztertzea**
- 5.1. Irakasleak bultzatutako zeregin, jarduera eta eztabaida motak.
 - 5.2. Zereginen edukiak.
 - 5.3. Edukiak irakastea eta prozedurak irakastea elkarriketaren bidez.
 - 5.4. Irakaslearen galderak eta dituzten funtzioak.
 - 5.5. Esandakoa birgogoratzeko, birformulatzeko, errepikatzeko teknika. Irakasleak haiek erabiltzen dituen egoerak.
 - 5.6. Haurren arazoitzeari emandako garrantzia, bai egintza giroan bai irudikatze giroan, eta haren pentsamendua garatzeari -taldeko elkarreragitearen bidez- (ideiak partekatzea, arazoak ematea, zergatiak galdetzea, iritziak zalantzan jartzea, hausnartzea, akordioetara iristea, denei parte harraraztea, denei beren erantzukizuna harraraztea...)
 - 5.7. Ikasleengan zenbait lengoia erabiltzearen garrantzia, arrazonamendua eta esperientzia besterenganatzeko (hura aberasteko, aurrerabidean jartzeko, kontatzeko, azaltzeko edo argudioak emateko).

Gaitasunak

1. Gelan elkar eragite eta komunikazio prozesuak ezagutu eta aplikatzea, eta ikaskuntza eta elkarbizitza erraztuko duten gaitasun eta trebetasun sozialak ezagutu eta aplikatzea.
2. Komunikazio eta adierazpen trebetasun handiagoa lortzea gela barruan eta kanpoan bi hizkuntza ofizialetan.
3. Hezkuntza prozesuaren segimendua kontrolatzea eta egitea, eta bereziki, behar diren teknika eta estrategiak menperatuz irakatsi eta ikastearena.
4. Teoria eta praktika gelaren eta ikastetxearen errealitatearekin lotzea.
5. Irakaslanean parte hartzea eta egiten jakiten ikastea, praktikatik arituz eta hausnartuz.

PRACTICUM III

Helburuak

Practicum III-ak hauxe du helburu nagusi: ikasleek proiektu didaktikoak eta hezkuntza-programak (berrikuntzakoak, lankidetzakoak, esku-hartzekoak...) diseinatzen, praktikan jartzeko eta ebaluatzen gaitasunak garatzea, aurreko Practicum-etan egindako lana berrikusiz eta esperientzia zer-nolako ikastetxean gauzatuko duten aurretik ezagutuz.

Hona hemen, zehatz-mehatz, Practicum III-ren helburuak:

1. Ikaskuntza-irakaskuntza prozesua kritikoki ebaluatzea. Practicum I eta II-a modu autokritikoan oroitzea, sortutako dokumentuen bidez

- 1.1. Ikastetxearen eta haren testuinguru sozialaren eta kulturalaren arteko harremana eta lankidetzaren. Proiektu eta programa motak. Alderdi bakoitzaren azterketa.
- 1.2. Umeekiko, tutorearekiko eta beste irakasleekiko harremana eta komunikazioa.
- 1.3. Irakaskuntzaren plangintzari eta antolakuntzari lotutako alderdiak.
- 1.4. Ikasgela bizitzea eta kudeatzea.
- 1.5. Esku-hartze proposamenaren irizpide pedagogikoak eta didaktikoak.

2. Esku-hartzearen eremua aztertzea

- 2.1. Arazoa aztertzea eta definitzea.
 - a. Aurrekariak.
 - b. Erakunde-markoa.
- 2.2. Erreferentzia-marko teorikoa.
- 2.3. Esku hartzeko estrategiak.

3. Proposamena diseinatzea, praktikan jartzea eta ebaluatzea

- 3.1. Prozesua zehaztea: proiektuaren edo programaren faseak.
- 3.2. Esku-hartzea diseinatzea.
- 3.3. Esku-hartzearen proposamena praktikan jartzea.
- 3.4. Esperientzia sistematikoki erregistratzea.
- 3.5. Prozesuak eta emaitzak aztertzea.
- 3.6. Hobetzeko proposamenak.

4. III. Practicumari buruzko hausnarketa eta balorazioa. Memoria egitea eta aurkeztea

Gaitasunak

1. Ikastetxe batean ezar daitezkeen jarduera eremuak hobetzeko proposamenetan parte hartzea.
2. 0-6 eta 6-12 urteko ikasle taldeen elkarrekintza eta komunikazio prozesuak erregulatzea.

3. Hezkuntza erkidegoko eta gizarte-inguruko sektoreekin elkarlanean aritzeko moduak ezagutzea.
4. Praktikaren bidez hausnartzea, irakaskuntza gauzatzean ikasleak dituen eskasiak eta indarguneak identifikatzeko eta eskolaren eta hezkuntza-sistemaren erronkak eta mugak ezagutzeko.

7. EBALUAZIOA

- **Praktiken kalifikazioa honako hauen emaitza izango da:**
 - Maisu-maistra tutorearen balorazioa (notaren %30).
 - Hezkuntza eta Kirol Fakultateko tutorearen balorazioa, hauetan oinarrituta:
 - Praktiketako memoria (%40).
 - Ikasleak mintegietan eta alde zuzeneko prestakuntzan egindako jarduerak (%30).
 - EZINBESTEKO DA BI ZATIAK GAINDITZEA
- **Azken notan eragina duten baldintzak:**
 - Formazio ikastarora EZ JOATEAK (8 ordukoa), AZKEN NOTAN 3 PUNTUKO jaitziera izango du.
 - Formazio ikastarora ordu batzuetan EZ JOATEAK, puntu jaitziera proportzionala izango du AZKEN NOTAN.
 - Jarraipen mintegietara EZ JOATEAK, PUNTU 1 gutxiago izango du AZKEN NOTAN, huts egite bakoitzeko.
- **Praktiken (ikastetxea, egonaldia eta memoria) balioa egindako ikasturterako soilik izango da.**
- **Practicum II eta III irakasgaietan ebaluatua izateko, ikasleak Practicum I eta II gainditu beharko ditu hurrenez hurren.**

Praktiketan GUTXIEGI kalifikazioa jarriko da honako kasu hauetan:

- **"Gutxiegi" memorian, lehenengo deialdian:**
 - Gutxiegi nota jarriko zaio, eta beste txosten bat egin beharko du. Ikastetxeko nota baliagarria izango da praktika denboraldia egin den ikasturteari dagozkion deialdietarako.
- **"Gutxiegi" memorian, bigarren deialdian:**
 - Berrito egin behar dira praktikak, baita beste memoria bat ere. Ikastetxearen nota ez da gordeko ikasturte batetik bestera.
- **"Gutxiegi" ikastetxeko irakaskuntza-praktiketan:**
 - Berrito egin behar dira praktikak, baita beste memoria bat ere.
- **"Gutxiegi" ikasleak mintegietan eta alde zuzeneko prestakuntzan egindako jardueran:**
 - Berrito egin behar dira praktikak, baita beste memoria bat ere.
- **Frogatu gabeko bi egun osotan edo 4 egun erditan, goizean zein arratsaldean, eskolara joan ez bada:**
 - Hurrengo ikasturtean praktikak errepikatu beharko dira.

Praktiketako memoriak Idazkaritzan baino ezingo dira aurkeztu eta, hain justu, horretarako finkatutako egunean. Hala egin ezean, EZ AURKEZTUA kalifikazioa jarriko zaio ikasleari.

Oharra: Ikastetxeko egonaldia egiten den ikasturtean baino ez da izango baliagarria. Memoria gainditu ezean edo adierazitako egunetan aurkeztu ezean, berriro egin beharko da ikastetxeko egonaldia.

8. 8. BALIOZKOTZEAK - AITORPENAK

PRACTICUM I-A BALIOZKOTZEA

1. IRAKASGAI OSOA baliozkotuko da:
 - 1.a. - Haur Hezkuntza Graduko ikaslea izanik, Haur Hezkuntzako Goi Mailako Teknikaria bada.
 - 1.b. Maisu-maistra diplomatua bada.
 - 1.c. Azkeneko hiru urteetan aritu bada irakasle gisa, gutxienez, urte erdiz lanaldi osoan edo urtebetez lanaldi erdiko arduraldian Haur Hezkuntzan edo Lehen Hezkuntzan.
 - 1.d.-Haur Hezkuntza Graduko ikaslea izanik, Lehen Hezkuntzan graduatua bada, eta alderantziz.
2. EGONALDIA SOILIK aitortuko da eta aurreko formazioa, jarraipen mintegiak eta azken memoria egin beharko dira:
 - 2.a. Praktika aldiak ikasleak ziurtatzen badu, Haur Hezkuntzan edo Lehen Hezkuntzan, lanaldi osoan diharduela irakasle gisa.

PRACTICUM II-A BALIOZKOTZEA

1. IRAKASGAI OSOA baliozkotuko da:
 - 1.a. Irakasle ikasketetako Diploma izanez gero.
 - 1.b. Haur Hezkuntzako Graduan matrikulatutako ikasleak egiaztatzen badu Haur Hezkuntzako Goi Mailako Teknikari tituluaren jabe dela (Goi Mailako Lanbide Heziketa).
2. EGONALDIA SOILIK aitortuko da eta aurreko formazioa, jarraipen mintegiak eta azken memoria egin beharko dira:
 - 2.a. Haur Hezkuntza Graduko ikaslea izanik, Haur Hezkuntzako Goi Mailako Teknikaria bada.
 - 2.b. Maisu-maistra diplomatua bada.
 - 2.c. Haur Hezkuntza Graduko ikaslea izanik, Lehen Hezkuntzan graduatua bada, eta alderantziz.

PRACTICUM III-A BALIOZKOTZEA

1. IKASGAI OSOA baliozkotuko da:
 - 1.a. Gorputz Hezkuntzako minorreko ikaslea izanik, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietan graduduna bada.
 - 1.b. Matrikulatu den espezialitateko maisu-maistra diplomatua bada.
2. EGONALDIA SOILIK aitortuko da eta aurreko formazioa, jarraipen mintegiak eta azken memoria egin beharko dira:

2.a. Praktika aldian ikasleak ziurtatzen badu, lanaldi osoan, matrikulatuta dagoen graduan irakasle gisa diharduela, baita Gorputz Hezkuntzako minorrean ere.

9. EGUTEGIA

Practicum I

| | |
|---|---|
| Aldez aurretiko prestakuntza | Irailaren 26 eta 27an 9:00 - 13:00 |
| Ikastetxean egin beharreko egonaldiari dagozkion orduak | 150 ordu 6 ordu egunean, beraz, 30 ordu astean, goiz eta arratsaldeko saioetan |
| Ikastetxean egin beharreko praktiken denboraldia | Irailaren 30etik urriaren 31ra |
| Praktikaldiaren jarraipenerako mintegiak | Urriaren 9, 16 eta 23an 15:00 - 17:00 |
| Memoria aurkeztea | Urtarrilaren 9an / martxoaren 12an Idazkaritzan |
| Notak argitaratzea | Otsailaren 20ean / apirilaren 2an |

Practicum II

| | |
|---|--|
| Aldez aurretiko prestakuntza | Urtarrilaren 23 eta 24ean 9:00 - 13:00 |
| Ikastetxean egin beharreko egonaldiari dagozkion orduak | 210 ordu 6 ordu egunean, beraz, 30 ordu astean, goiz eta arratsaldeko saioetan |
| Ikastetxean egin beharreko praktiken denboraldia | Urtarrilaren 27tik martxoaren 13ra |
| Praktikaldiaren jarraipenerako mintegiak | Haur Hezkuntza: otsailaren 12an eta 26an; eta martxoaren 11n Lehen Hezkuntza: otsailaren 5ean eta 19an; eta martxoaren 4an 15:00 - 17:00 |
| Memoria aurkeztea | Apirilaren 23an / ekainaren 4an Idazkaritzan |
| Notak argitaratzea | Maiatzaren 21ean / ekainaren 18an |

Practicum III

| | |
|---|--|
| Aldez aurretiko prestakuntza | Urriaren 30 eta 31n 9:00 - 13:00 |
| Ikastetxean egin beharreko egonaldiari dagozkion orduak | 300 ordu 6 ordu egunean, beraz, 30 ordu astean, goiz eta arratsaldeko saioetan |
| Ikastetxean egin beharreko praktiken denboraldia | Azaroaren 4etik urtarrilaren 24ra |
| Praktikaldiaren jarraipenerako mintegiak | Haur Hezkuntza: azaroaren 20an, abenduaren 11n eta urtarrilaren 8 eta 22an Lehen Hezkuntza: azaroaren 13an eta 27an; abenduaren 18an; eta urtarrilaren 15ean 15:00 - 17:00 |
| Memoria aurkeztea | Martxoaren 5ean / maiatzaren 7an Idazkaritzan |

Notak argitaratzea

Apirilaren 30ean / maiatzaren 28an